

Adierazpena: Etxeraten ekarpena bizikidetzari



2019-III-01

Euskal iheslari eta presoek senitartekook gure lurraldeko bizikidetzari demokratikoari ekarpen bat egiteko egiazko borondatea publikoki adierazi nahi dugu. Agertoki berri honetan premia bat partekatzen dugu: gatazka politikotik eratorritako bortxaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiei eta pertsona bakoitzari entzun dakiola, gatazka hori konpontzeko ekarpen gisa eta berriro horrelakorik gerta ez dadin.

Badakigu ETaren biktima asko aurrerapauso bat ematen ari dela, beste espetxe politika bat publikoki aldarrikatuz eta egungoa albora utziz; izan ere, egungo espetxe-politikaren ondorioen artean dago euskal preso politikoen senitartekoak zigortzea. Egiaz eskertu nahi diegu sufritzen dugunokiko agertzen duten enpatia eta hori eskuzabaltasunez egitea, trukean ezer espero izan gabe. Geuk ere elkar onartzearen aldeko ekarpena egin nahi

dugu. Benetakoa da horretara bultzatzen gaituen bulkada, bakearen eta bizikidetzaren aldeko konpromisoak bultzatuta adierazten duguna.

Bortxa mota ororen biktima izan diren guztiei gertatu zaien moduan, euskal preso politikoen senitartekook urte askotan zehar sentitu dugu gizartearen zati baten eta haren ordezkari politikoen indiferentzia. Badakigu nola alboratzen diren bizikidetzaren politika publikoak eta salbuespeneko espetxe politikaren biktima potentzialak izaten jarraitzen dugu. Geure burua babestera eta besteen minaren aurrean isiltasuna gordetzera eraman gaitu horrek. Besteengana hurbiltzeko eta haiei enpatia adierazteko gai ez izatera eraman gaitu.

Zinez eta benetan barkamena eskatzen dugu, horretaz konturatu gabe, gure urruntasunaren bidez, areagotu ahal izan dugulako senitarteko bat bortxaren eraginez galdu duten ETaren biktimek jasan behar duten mina.

Bortxaren era guztietako adierazpenen biktima ororekiko aitortzea, begirunea eta enpatia agertzen ditu Etxerarek. Biktima guztiekikoak, edozein dela ere bortxaren jatorria: ETaren biktimak; Komando Autonomoenak; Estatuaren terrorismoarenak; Espainiako Estatuaren Segurtasun Indar eta Gorputzen jarduerarenak; torturen biktimak. Horiei guztiei eskua luzatzen diegu gaur, bereziki, egitez edo ez-egitez, nahi gabe bada ere, berorien mina areagotzen esku-hartu badugu.

Ezin ditugu ahanzi, eta ez ditugu ahanzi nahi ere, sakabanatzearen ondorioz trafiko-istripuz senitarteko bat galdu duten 16 familiak; ez eta, espetxe politikaren erruz hurbileko pertsona maitatu bat galdu duten 31 familiak ere; galera horiek samin sakon bat eragin digute eta ekidin ahal izan zitezkeen zuzenbideari atxikitako espetxe politika bat aplikatu izan balitz. Sufrikarioekiko distantziakidetasunik ezarri nahi izan gabe, jakinarazi nahi dugu sufrikarioa geure barne-errietatik ezagutzen dugula eta horrek eramaten gaituela zuena aitortzera.

Lurralde honetako biktima gehienekin gertatzen denaren antzera, gu ere ez gaitu mugitzen mendeku sentipenak edo sufritu dugun guztiaren ordainetan besteari sufriarazi beharrak. Gure aniztasunetik adierazten dugu mugitzen gaituena honako hau dela: honetatik guztitik

ezer ez dadila errepika eta etorkizuneko belaunaldiek ez ditzatela berriro sufri gatazka politikoaren ondorioak.

Horregatik, gure erronka hau da: jarrai dezagula elkarri entzuten, Etxeratek azken urteotan landu duenaren ildotik. Zubiak eraiki beharra daukagu eta kontakizun poliedriko batera hurbilduko gaituen bidean askotariko kontakizunak azaleratu beharra; horrek elkarrengana hurbilduko gaitu, zauriak sendatu eta itxiko ditu, eta bizikidetzaren oinarriak ezarriko ditu. Benetako bakerantz eta bake iraunkorrerantz doan bidea sostengatzen eta babesten duen gizarte bati guztion artean egin diezaiokegun ekarpenik onena da.